

# ERDU PRESS

ARRIETA · FRUIZ · GAMIZ-FIKA · MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

15. zkia.

2004ko martia

## Ingurumena guztion esku



21

UDALSAREA



Agenda 21

## UDALSAREA 21

Udalsarea 21 (Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien sarea) 2002an eratu zan, eta orduan 16 udalerrri zegozan sarean. 2003ko abenduan EAEko 21 udalerrri gehiago gehitu dira sarrera, eta 21 horreen artean doguz, besteak beste, Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñaka udalerrriak. Sarea zabaltzeko ekitaldia 2003ko abenduaren 15ean egin zan, Lehendakaritzan. Ekitaldi horretan sarera sartu barri diran udaletako alkateek diploma bana jaso eben; diploma horrek udalek garapen jasangarriaren alde egin daben beharra aitortzen dau.



## GAZTEDI FOROA

Bizkaiko Foru Aldundiak GAZTEDI FOROA eratu barri dau. Foro horrek gazteentzako zerbitzuak eta ekimenak sustatzea izango dau helburu, eta Bizkaiko udal eta mankomunitateetan gazteen arloan beharreen dabizan zerbitzu eta erakundeak bilduko dauz. Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalek herriko gazteentzako zerbitzuak eta ekintzak bultzatzeko konpromisoa hartu dabe eta Gaztedi Forora atxiki dira.

## BERPIZTU PROGRAMA

Mendikoi Landa Garapenerako Institutuak landa-inguruneak suspertzeko asmoagaz BERBIZTU programa jarri eban abian 2001. urtean. Gure udalerrriak programa horren barruan egon dira hasikera hasikeratik, eta, daborduko, diagnostikoa eta ekintza plana eginda dabez. Holan ba, aurten, bigarren faseari ekingo deutsie, hau da, gure udalerrietan Ekintza Plana bultzatzeari eta garatzeari.

## IPUIN LEHIAKETA

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalak antolatuta abenduan Gabonetako Ipuin Lehiaketa egin zan. Lehiaketara 22 ipuin eta 8 marrazki aurkeztu ziran eta abenduaren 19an, Meñakako Bekoabadene txokoran, egin zan sari banaketa. Epaimahaia lau udalerrietako ordezkari osatuta egon zan, eta danek aurkeztutako lanen kalitatea azpimarratu eben. Honakoak izan ziran kategoria bakoitzean lehenengo saria lortu eben ipuinak:

- I. Kategoria: *Luki nire laguna* ipuinak. Egilea: Ainhoa Enzunza
  - II. Kategoria: *Ostadarraren atzetik* ipuinak. Egilea: Irati Enzunza
  - III. Kategoria: *Olentzero Baltasar* ipuinak. Egilea: Ortzuri Rike
  - IV. Kategoria: *Edukitzeak duen garrantzia* ipuinak. Egilea: Aitor Azketa
- Marrazkietan: Sheila Etxebarriak egindako marrazkia izan zan sariduna.



# MEÑAKA

## Gabonetako ekitaldiak arrakastatsuak Bene-Benetan

Aurtengo Gabonak behar dan moduan ospatzeko, hiru ekitaldi nagusi eratu genduzan: batetik, herriko pertsonak eleizan antzeturiko jaiotza bizia; bestetik, Olentzero eguna; eta, azkenik, musika barrokoaren Gabonetako kontzertua.

Jaiotza bizia Gabon, Egubarri eta Errege egunetan ospatu genduan, meza ostean eta ordubeteko tartean. Guztira 30 herritar baino gehiagok hartu genduan parte ekimen honetan eta, egia esan, jentearen esanetan, jaiotzea ikusgarria izan zala aitatu behar da. Halandaze, Gabonetako ekimen honetan parte hartu zenduen guztioi eskerrak emon gura deusueguz, jantziak josten eta behi nahiz astoaren irudiak egiten ibili ziran andra-gizonak ahaztu barik.



Bestalde, tradizioak agintzen dauen lez, Olentzero Gabon egunaren bezperan ospatu genduan; Olentzeroa, astoa eta Gabontxu izeneko laguntzailea Sollubetik jaitsi eta herriko ume eta guraso guztiok eleizatik udaltxeragino lagundu geuntsen. Bertan, 100 pertsonak baino gehiagok harrera bero-beroa eta ezin hobea egin geuntsen eta Olentzerok gure lana eskertzeko umeei ekarritako opariak banandu ebazan pozarren.



Azkenik, Gabonetako egitaraua biribiltzeko, abenduaren 26an, ilundiko 20:30ean, "Equis Ensemble" musika klasikoaren taldea euki genduan geure artean, Andra Mari eleizan. Musika barrokoaren ekitaldi zoragarria eskaini euskuen, programan Couperin, Dieupart eta Händel maisu handien obrak joz. Boskote honen jarduna eleizara joan ginan guztion zozagarria izan zan.



### KZ GUNEA Meñakan

KZ GUNEA zabalduko da Meñakako Liburutegian. Internet nabigatzeko ikastaroak eskainiko dira debalde. Informazio gehiago jasotzeko deitu Meñakako Udaletxera: 94 674 21 01



### Herriko tabernea adjudikatzeko jendaurreko lehiaketea

Udalak, zezeilaren 19an, onetsi eban Herriko Tabernea jendaurreko lehiaketa bitartez adjudikatzeko baldintza plegua. Beraz, udalbatzearen erabagi honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik zenbatzen hasita, interesatuek 26 eguneko epea eukiko dabe, adjudikaziorako eskaera orriak aurkezteko. Interesatuta bazagoze edo argibiderik gura badozue, deitu 94 674 21 01 udaltxeko telefonora.

### Makina bat herritar Santa Ageda egunean

Antxinako usadioak herrian oster a be zuztartzeko azken urtean egindako beharrari jarraituz, Santa Ageda eguna ospatzeko edade guztietako herritar talde bat batu zan zezeilaren 1 eta 2an. Horretarako, Meñakan aspaldi kantetan ziran bertso eta musikaririk zaharrenak aukeratu eta herri osotik zehar, auzorik auzo, ibili ginan kantetan. Une batzuetan 60 pertsona baino gehiago batu ginan alkarregaz kantetako. Halandaze, herritar honeen ekimenari esker, Meñakan orain dala 40 inguru galdutako tradizio bat berreskuratu ahal izan genduan.



# FRUIZTARRAK BERBETAN


*Fruiztarrak berbetan*, horixe da Fruizko Udalak atera dauan liburuaren izenburua, eta izenburuak berak esaten deuskun lez, liburu honetan fruitzarrak jarri dira berbetan, eta fruitzarren berbete modua batu da, beti be, ahalik eta modu zehatz eta errazenean.

Liburu hau hainbat urtetako behar eta azterketaren emaitza izan da, holango lan bat ez da eta egun batetik bestera egiten, entzuketa eta ikerketa ordu asko eta asko behar dira herri bateko hizkera batzeko. Behar hori guztia Jon Uriartek egin dau. Bera izan da lan eder honen egilea. Jon Uriarte fruitzarra dogu, euskal filologoa da, eta esan behar da euskerearen gaineko guztiak betirik erakarri dauala; euskerearen gaineko guztiak, eta, zelan ez, bera fruitzarra izanda, Fruizko euskerearen gaineko guztiak. Jon Uriartek berak holan dinosku liburuaren sarreran: "Betirik gustau izan jat neure herriko berbete-klasea, ez gure herrikoa dalako ezpadaze neurea dalako, eta neurea izan baino arinago, neure aurretik fruitzar izan diran guztiena be izan dalako"

*Fruiztarrak berbetan* liburua sei ataletan dago banatuta eta atal bakoitzak arlo bat aztertzen dau (bokalak, fonologia, sintaxia, lexikoa...) Azken atalean 41 herritarrereri jasotako testuak dagoz, testuotan hainbat gai

azaltzen dira (gerra, siniskeriak...) eta horreetako batzuk liburuagaz batera atera dan CDan entzun daitezke.

*Fruiztarrak berbetan* liburuagaz fruitzarrak badauke harro egoteko nahiko arrazoi, euren-eurena daben euskerea bertan dabe-eta betiko jasota.



# ARRIETA

## *EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLANAREN AURKEZPENA*

Igaz Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatzeko konpromisoa hartu eben, eta 2004-2007ko Plan Estrategikoa diseinatu eben. 2004ko urtarrilaren 16an, Arrietan, plan horren jendaurreko aurkezpena egin zan. Aurkezpen horretan udalek hartutako konpromisoaren barri emon zan eta datozen lau urteetan zeintzuk alorretan behar egingo dan azaldu zan. Plan honegaz euskerearen erabilera indartu eta zabaldu gura da, euskaraz bizi gura daben herritarrek euskaraz bizitzeko modua izan dagien maila guztietan.

Euskera Biziberritzeko Plana aurrera erodateko udalek Eusko Jaurlaritzza eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz alkarlanean jardungo dabe. Bestalde, Euskararen Aholku Batzordea be eratu da. Batzorde hori hiru udalerrietako ordezkari osatuta dago, eta bere zeregin nagusia aurrerrantzean, plana aurrera ateratzeko urtean-urtean egingo diran gestio-planen jarraipena egitea izango da.



## SANTA AGEDA

Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat txokotan bezala, Arrietan be, Santa Ageda kanta entzuteko aukerea izan genduan. Zezeilaren 4an herriko umeak makila hartu eta han-hemen ibili ziran Santa Ageda abesten, eta domekan Arrietako Abesbatza. Arrietako Abesbatzak, ohitura dauan lez, domekako meza ostean ekin eutson Santa Ageda abesteari, eta auzorik auzo ibili ziran herritarren belarriak gozatuten; lan horren ordainetan abesbatzekoek txorizoak, arrautzak eta dirua batu eben. Batutakoaren zati bat afaritxo bat egiteko gordetan dabe eta gainera koa eleizako eta koruko gastuetarako ixten dabe.

# GAMIZ-FIKA

## KZ GUNEA FIKAN

Gamiz-Fikako herritarrek internet zer dan eta interneten ibiltzen ikasteko aukera izango dabe herritik urten barik; izan be, martian, KZ GUNEA zabalduko da Fikako lehengo eskoletan, eta ikastaroak eskainiko dira bertan. Ikastaroak debalde izango dira eta astelehenetik barikura emongo dira.

Ekimen hau Eusko Jaurlaritzak eta EUDELEK bultzatutako ekimena da, eta komunikazioaren eta informazioaren teknologia barriak herritarrengana hurbildu gura dira.

Ikastaroetarako izena emoteko zein argibide gehiago jasotzeko Gamiz-Fikako udaletxera deitu behar da (94 615 31 14)



## ATHLETIC TALDEKO PEÑEN ARTEKO ANAITASUN EGUNA

Martiaren 20an Athletic Club taldearen peña eta zaletu guztiak alkarragaz egoteko aukera ezin hobea izango dabe Gamiz-Fikan. Aurtengoa anaitasun egun hau ospatzen dan bosgarren urtea izango da, eta, aurreko urteetako parte hartzea eta erantzuna ikusita, aurtengo hau be egun ahaztezina izango da talde zuri-gorriaren jarraitzaileentzat.

**Hona aurtengo egitaraua:**

- 10:15etan:** Futbito 5 Txapelketaren Finala Fikako pelotalekuan  
Txoznaren inagurazinoa  
Bazkarirako sarreraren banaketa  
"Otxote Barikuetakoak" alaituko dau giroa.
- 13:00etan:** Ongi etorria pelotalekuan  
Bolanderak  
Dantzak  
Ibilbide turistikoa Gamiz-Fikan zehar
- 14:00etan:** Javier Uria zenari ohorezko aureskua  
Musika ekitaldia PISPILLU abesbatzaren eskutik  
Terueletik ekarritako traka  
Herri poteoa
- 15:etan:** Bazkaria Fikako pelotalekuan. On egin!!



**Zuretzat  
zer dira  
aratusteak?**



**IERA AGIRRE**  
Meñaka

Otsailaren erdian hasten dira, hau-tsa eguna baino egun batzuk arinago; nik pentsetan dot inauteri egunak honako hau esan gura dauela: "inau" haragia eta "eria" parrandea. Ganera, jentea nor dan ez jakiteko, guztiok mozzoratzen gara. Meñakan, gehien gustatu jakuna "Basatoste" eguna izan da, txitxi-burduntzia, kantak eta guzti.

**Ze mozorro jantzi dozu aurtengo aratosteetan?  
Orain arte jantzi dozuzan mozorroetatik, zein  
izan da gehien gustatu jatzena?**



**ANTXON BARAINKA**  
Arrieta

Aurtengo aratosteetan scream mozorroa jantzi dot. Aurrekoetan pailazo, Robin Wood, mago, pirata... mozorroak jantzi dodaz, eta danatatik gehien-gehiengustatu jatana mago mozorroa izan da.



**JONE BILBAO**  
Fruiz

Aurten matrix mozorroa eta igaz jaiobarri mozorroa. Ikusi dodazanetatik makarra mozorroa izan da niretzat politena, baina nik ez dot oraindino jantzi. Datorren urtean igual.



**JONE GOITISOLO**  
Gamiz-Fika

Zingara mozorroa jantzi dot aurten, eta orain arte jantzi dodazanetatik gehien gustatu jatana makarra mozorroa izan da.

(Denpora-pasa honeek Lumatxo aldizkaritik hartu dira)

**DENPORA PASAK**



Erantzunak: Perretxikoa. Beroa.

**ESAERA ZAHARRAK**

Ezkurrik ez dan urtean negua ezti.

(*Atsotitzak, Gotzon Garate*)

Negua, zaharren hilgarria eta gazteen zahargarria.

(*Atsotitzak, Gotzon Garate*)

**TXISTEAK**

- Mesedez, esango deustazu zenbat balio dauan horko koadro horrek?

- Horrek? Bostehun euro.

- Bostehun? Fiuuuuu!

Eta beste horrek?

- Horrek? Horrek txistu luze bi!

(*Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta*)

- Aita!

- Zer dozu seme?

- Bart gauean amets arraroa egin dot: ametsean zuk bost euro emon zeuntazan!

- Zuk bai suertea! Ondo gorde eta ez galdu.

**ALE HONETAN PARTE  
HARTU DABE:**

**ZURIÑE GOTI  
JOSEBA TERREROS  
ELIXABETE URIARTE**

**EDURRE, LEIE  
eta IÑETASIDXE**

**Edur matasie:** edur maluta.

*Edur seye esaten dxako orreri, t'edurre parra parra dxausten danien edur matasie.*

(Edur xehe esaten jako horreri, eta edurra parra-parra jausten danean edur maluta)

**Lei baltza:** lei baltza, ikusten ez dan leia da, baina ikusi ez arren lurra gogortu egiten dau.

*Lei baltzak dana erretan deu, patatie edo erneta badau be dana erretan deu, gero barridxen urtetan deu baya.*

(Lei baltzak dana erretzen dau, patata edo erneta badago be dana erretzen dau, gero barriro urtetan dau baina).

**iñetasidxe:** inetasia, txingorra, harria.

*Gero gebonetara asten bada txarra, mayetzerano be iñetasidxe ta otza igual, edurre be bai.*

(Gero gabonetara hasten bada txarra, maiatzeraino be txingorra eta hotza beharbada, edurra be bai).

*Arrieta barbarik berba  
Iñaki Gaminde*



**ARRIETA • FRUIZ  
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA  
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila  
Euskara Sustatzeko  
Zuzendaritza Nagusia